


Astekaria



elgoi



# Zuriz jantzita

IRAKASLE

ELKARTEA

## ZEZENBIDE

San Frantzisko 43 • ☎ 74 27 20 • ELGOIBAR



auto-eskola

*izena ematean  
%10eko beherapena  
Gazte Txartelarekin*



**JO TA KE**  
*independentzia*  
**lortu arte**

**OTSAILAK**  
**24**  
**DONOSTIA**

Bihar larunbata  
 Anoetako Estadioan  
 arratsaldeko  
 5,30etan

**BOZKATU HERRI BATASUNA**

**BEGIRALE TITULUDUNEKIN**

*Ama, nik ere nahi dot!*

**La ran ba ro**

**OHOKO 2-3-4-5. mailak**

*Ekintzak*  
 Jolasak  
 Irteerak  
 Eskulanak ...

*Ordutegia*  
 16,00 -19,00

*Datak (10 larunbat)*  
 Martxoak: 2-9-16-23-30  
 Apirilak: 20-27  
 Maiatzak: 4-11-18

*Prezioa*  
 2.000 pta

*Izena emateko*  
 Otsailaren 23ra arte  
 Elgoibarko Izarra K.E.  
 Ubitarte 4, behea  
 Tel. 74 16 26

ANTOLATZAILEA: ATXUTXIAMAIIKA Begirale Taldea

LAGUNTZAILEAK: Elgoibarko Udala / Gipuzkoako Foru Aldundia

elgoi**BARREN**  
Nafarroa enparantza 2  
☎ 74 41 12

**ARGITARATZAILEA:**

Elgoibarko Izarra.

**LAGUNTZAILEA:**

Elgoibarko Udala.

**ZUZENDARIA:**

Ainhoa Lodoso.

**ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:**

Andres Alberdi.

**KAZETARIAK:**

Ainhoa Lodoso,

Jasone Osoro.

**PUBLIZITATEA:**

Myriam Aldazabal.

**MAKETATZAILEA:**

Maite Rementeria.

**ADMINISTRAZIOA:**

Amaia Martin,

M. Angeles Ortoste.

**KOLABORATZAILEAK:**

Irati Agirreazaldegi, Xabier

Ansola, Nekane Aranburu,

Pello Arrieta, Ina

Garagarza, Amaia

Gorostiza, Maite Iriondo,

Edu Iriondo, Alberto

Iriondo, KOKOE, Imanol

Larrañaga, Javi León, Juan

Mari Mendizabal, Milagros

Oiarzabal, Benantzio

Otaegi, Aitor Zabaleta,

Julen Zabaleta, Deñe

Zabalo, Lucia Zubiaurre.

**BANAKETA ARDURADUNA:**

Imanol Larrañaga

**INPRIMATEGIA:**

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñati)

**TIRADA:** 3.600 ale

**LEGE GORDAILUA:** SS-

1.038/92


**ISSN:** 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



luztea fundazioa  
fundación luztea

# ZENBAT BURU



## HAINBAT ABURU

# Eskale izateko ere baimena behar

**G**ranada aldetik dator berria. Munduko Eski txapelketa jokatu da egunotan Andaluziako hiri horretan. Aurrez, bertako Udalak Txapelketa horretarako prestakuntzak egin ditu, hiria apain uzteko.

Prestaera ahalegin hauekin batera, ordea, Granadako Udalak bi erabaki bitxi ere hartu ditu, turisten begietarako hiria ederragoa eta apainagoa ager dadin. Bata, hiriko eskale guztiei alberge eta hoteletan dohainik ostatua ematea, Eski Txapelketak irauten duen bitartean. Bestea, hemendik aurrera, eskale guztiei eskean egin ahal izateko udalaren baimen ofiziala eskatzea.

Baina Granadako eskaleak momentu batez utziz, gatozen Euskal Herrira. Izan ere, Andaluzian ezezik gure artean ere bai baitaude eskaleak. Euskal Herriko hiri nagusienetan ikus ditzakegu: autobus eta tren geltokietan, parking inguruetan, elizako ateetan, kale nagusienetan. Eta eskale horiez gain, badira eskale ibiltariak ere, herriz herri ibiltzen direnak. Horietarikoak dira Elgoibarrera iristen direnak.

Batzuk bakarrik etortzen dira, beste batzuk binaka. Gehienak gizonetzkoak dira, 30 eta 50 urte bitartekoak. Etxerik eta aterpe finkorik gabeko pertsonak.

Elizako arkupeetan, obrak egiten ari diren lekuren batean, lehor dagoen edozein bazterretan antolatzen dute kartoizko koltxoia. Gero lotarako zakuaz edo manta batez nahikoa dute gaua pasatzeko.

Eskale hauetako bakoitzak historia luzea eta tristea du bere gain. Familiarik ez dute,

edo familiarekiko loturak hautsiak dituzte aspaldidanik; lanik gabe daramatzate urte luzeak; asko gartzelan egondako pertsonak dira.

Eskale ibiltari hauen etsairik gogorrenak, neguko gau luze eta hotzak dira batetik, eta bestetik, alkohola, droga, gaixotasunak, depresioak, psikosiak, etab. Azken bolada honetan hiri handietako skinheads edo buru-soilak ere bai.


Agian inork gutxi lagundu die pertsona bezala bizitzen. Hala ere, eskaleek badute pertsona izateko nahia eta gizaki bezala onartuak izateko gogoia. Askotan, dirua eta jatekoa baino gehiago, garbitzeko eta bizarrak kentzeko lababo bat, pertsona bezala kalean agertzeko oinetako egoki eta jantzi garbi batzuk, pertsonak bezala tratatuak izatea... estimatzen dute.

Donostian, Trintxerpen, Larratxon, Andoainen, Karitasek, Emahus-eko traperok, udal eta fundazio zenbaitek ostatua, jangelak, garbitasun zerbitzuak eta gizarteratzeko tailerrak antolatzen dituzte. Urrats positiboak dira horiek, nahiz eta nahikoa ez izan horrela dabilzan eskale guztientzat.

Egia da, bai, eskale ibiltariak ez daukate la baimenik eskean ibiltzeko. Baimena ateratzeko dirurik ere ez. Lanik ere ez dirua sortzeko. Ezta inor ere lana eskaintzeko, edo lanik ezean, etxean mantentzeko. Baina Sierra Nevada, Formigalen edo Ezcaray-n eskiatzen duen oro bezala, edo larunbat-igandeetan Elgoibarko kalean txikitoak hartzen ditugunok bezala, hauek ere, pertsonak dira.

**Benantzio Otaegi**

*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*



## KEXAK

Emakume bat jarri da harremanetan gurekin gauetan farmaziekin gertatzen denarekin ez dagoela eskubiderik esateko. Ostiral gau batean semea gaixotu eta farmazia bila hasi zenean denak itxita zeudela ikusi zuen, Plazentziko bidea hartu behar izan zuelarik. Herrian hainbeste egonda, ez al da lotsagarria erbestera joan behar izana?

## TXALOAK

- Irakurle gazte talde batek Pello Arrieta txalotu nahi du "Txokorik Txoko" atalean elgoibartarron altxor kulturalak agertarazteko egiten duen lanagatik. Txalo bat baita ere Ina Garagarzari eskaintzen dion laguntzagatik.

- 7. mailako haurren ama talde batek deitu digu telefonoz Udaleko Kultur Batzordea txalotzeko. Ihauterietako asteartean, arratsaldeko jaia Polikiroldegira pasatzea ideia ona izan omen zen. Bestalde, Mauxitxa txaranga ere txalotu nahi dute. Oso herri gutxi omen dute horrelako txaranga bat izateko zortea, eta oso giro polita ipini omen zuten.

- Urasandiko emakume batek deitu digu Udal Brigadakoak txalotzeko, azken egunotako elurteak direla-eta egin duten lan estimagarriagatik.

## ESKUTITZAK

### Aurreko asteko kexari erantzunez

**M**atadero zaharraren ondoko aparkalekuan argi gutxi dagoen kexari erantzunez, zera adierazi nahi dut: aparkaleku horretan laster herri erabilpenerako ibilgailuen garbiketarako gunea jarriko dela eta aldaketa hori aprobetxatuz, leku horri dagokion argi azterketa egingo dela.

### Udaleko elektrizista

### Eskerrikasko Banda!

**G**uk, elgoibartarrok, daukagu zortea! Beste herri askok ez dutena; gure herriko banda.

Azken kontzertuan, Herri Antzoki politean, musika alai, polit eta atsegin entzuteko aukera izan genuen. Benetan gustukoa izan zitzaidan.

Esan beharra dut musikari buruz gauza askorik ez dakidala. Putz egin eta atzamarrak mugituaz doinu bereziak ateratze hori ulertu ezina da niretzat. Baina, hala eta guztiz ere, oso gustura aurkitu nintzen gure banda entzuten.

Egia da Txomin Mujikaren aurkezpen hain argi eta alai kontzertua asko jazen dutela. Hauen bidez erakutsi digu musika tresnak baloratzan, klarinetea eta oboea desberdintzen, eta erakutsi baita ere, bandari eta musikagileei buruzko hainbat eta hainbat berezitasun.

Beraz, eskerrik beroenak banda-ko partaide guztiei, Osoro zuzenda-

riari eta nola ez Txomini.

Eutsi gure bandari!

I.K.I.

### Ez dadila gertatu euskararekin, Leizarragarekin gertaturikoa

**E**uskara maitea, ez duzu merezi euskaldunek horren gutxietsirik uztea. Zu baizera gure herriaren arnas eta muin. Zu baizera gure arbasoek milaka urtetan elkartu dituen arima. Zu baizera gure marinela mundu zabalean zehar sendotu dituen indarra. Zu baizera gure nekazariak eta gure herrietako langileak gozatu dituen ezti gozoa. Zu, gure herriari horren maitekiro gure sinesmenaren disdiratsuz poztu eta gairitu zenuen Berri Ona.

Zugatik baita ere, herri minez hainbeste jende, ezagunagoa izan zaitez, tinko landu, aztertu eta bildu zaituzte, hiztegi trebeak argitaratu.

Leizarragak bigarren euskal liburua idatzi zuen 1571n, "Biblia Saindua". Apaiz calvinotarra zenez, ez zuen kristau herrian eraginik izan.

Eta orain ere, Euskal Herria gatazka batean dagoenean, euskararen soroa, lur sendoa eta emankorra bada ere, hazia arantza artean ereiten bada, Bibliak dioen bezala, "ernalduko da, baina arantza artean ito egin daiteke"

Beraz, euskarari giro berezi bat eman behar zaio, maitekiro, eztitu eta bihotzak irabaziz.

Juan Martin Etxeberria

## HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





ste honetako erretratua **Maite Vallejo**k lagatakoa da. Erretratua benetan zaharra da, 1919koa gutxi gora-behera. Vallejotarren senitartekoen erretratua da. Francisco Vallejo, Maiteren aitaitxa, Palenciatik etorri omen zen Elgoibarrera bizitzera. Ezkondu, berriz, Mikaela Astigarraga “Porru”rekin ezkondu zen. Maitek esan digunez, aitona Palenciatik etorri arren, euskaltzalea omen zen. Ikus dezagun zer zen emazteari esaten ziona:


“Tu Mikaela a los hijos en vasco, aunque yo no lo entienda. Soy yo el que ha venido de Palencia y tengo que adaptarme a las costumbres y al idioma de aquí”.

Ikusten denez, erdaldunen artean ere izan dira euskaltzaleak. Ikus dezagun zeintzuk diren erretratuak: Ezkerretik hasita: **Demetrio Vallejo** (†), **Mikaela Astigarraga “Porru”** (†), **Felisa Vallejo** (†), **Francisco Vallejo** (†), **Francisco Vallejo semea** (†) eta **Rafaela Vallejo**.

Aspaldiko partez elurrik ikusi gabe geunden. Mendi tontorrak noizbehinka zuritu izan dira baina kalean bertan barra-barra erortzen ikustea ez da, ez, gauzarik normalena. Aurten, ihauterietako astearteak hotza eta elurra ekarri zituen eta zuria mozorroen kolore biziakin nahastu beharrean, zoritxarrez jaia dexente moteldu zuela esan behar.


Zapatuan giroa majo egon zen. Jendeak etxeko trapu zaharrak jantzita edo egindako arropa berriak hartuta ekin zion urteko jairik pikaroena ospatzeari. Nola edo hala, eguraldiak lagundu zuen eta horren islada izan zen kaleetan ikus zitekeen kolore kontrastea. Arratsaldean ekin zitzaion jaiari. 4ak pasata hasi zen Atxutxiamaikak antolatutako play-back jaialdia. Talde ezberdinek hartu zuten parte, bakoitzak bere abesti eta koreografia propioa erakutsi zuelarik.





Besteak beste, Gozategi aanaiak, Egan, Itoitz edo Grease pelikulako abestiak entzun ahal izan ziren. Gaueko 12etan, berriz, sorginak atera-tzen diren orduan, eman zi-tzaion hasiera mozzorro lehiaketari. Atxutxiamaikea begirale taldeak aurkeztu zuen eta epaimahaia KOKOE, EKEKEI eta EGU-Rek osatu zuten. EGAN taldearen musikak lagunduta hainbat eta hainbat partehar-tzailek desfilatu zuten. Taldeka, astronautek irabazi zuten; bigarren, Aterpeko zirkoa eta, hirugarren dragoi txinarra geratu ziren. Banaka, berriz, lehen saria hutsik geratu zen. Bigarrena Milka behiaz mozzorrotua zegoen haur batek irabazi zuen eta hirugarrena indiar bat sailkatu zen, Kristina Etxeberria. Jaiak, kale eta tabernetan jarraitu zuten.

Asteartea haurren eguna izan ohi da. Aurten, elurra zela eta, Polikiroldegian egin ziren ekintza guztiak. Atxutxiamaikea taldeak dantza lehiaketa antolatu zuen. Ondoren suzko zezena izan zen eta, amaitzeko, Mauxitxa. Kanean ez zen jende gehiegirik ibili, Pitxintxu dendakoak Almodobar eta bere neskez mozzorrotu ziren, egipziarrak eta pailazoak ere bazebiltzan han-hemenka baina, egun horretan, eguraldia aproposagoa zen etxean manta bat hartu eta estufaren epelean geratzeko. Elurra izan zen asteartean protagonista. Aukera-aukeran ibili ziren elurrezko panpinez mozzorrotu zirenak. Hurrengo urterarte!





## Gogoratzen duzu 23F-a? Nola?



**RUTH GURRUTXAGA**  
20 urte, ikaslea

Gogoratzen dot, bai, nahiz eta gaztia nitzan, baina bildurra pasatzeko konziente ez nitzan. Oin, berriz ere pasauko dan bildurrik ez dakat.



**DANIEL TORRES**  
20 urte, langabetua

Tejero ezaguna egiten zait baina ez dut ezer gogoratzen. Gaur egungo gauzak gehiago geratzen zaizkit eta egoera ikusita, edozer gertatzea posible ikusten dut.



**M.KARMEN MANZIDOR**  
57 urte, etxekoandrea

Holako gauzak ez akordatzia hobeto, gogorra da eta. Berriz ere pasatzeko bildurra beti dakagu, pasau izan dogu nahikua eta. Baina, espero dot ez pasatzia.



**ASTERIO PEREZ**  
28 urte, arotza

Anaia soldadutzan zegoen Madrilen eta han tokatu zitzaion. Euskal Herrian egonik beldurra pasatu genuen. Berriz ez gertatzea espero dut nahiz eta dena den posible, batez ere oraingo egoera ikusita.



**DELFINA FERNANDEZ**  
37 urte, etxekoandrea

Gogoratzen dut bai. Gerta zitekeenaren beldur piskat bagenuen. Gaur egun berriz ez gertatzea espero dut, halere, beldur piskat beti duzu.



**JACINTO ALZIBAR**  
66 urte, jubilatua

Akordatzen naiz. Kaka daixola egon ginan hemen! Gaur egunian ezer pasauko danik ez dot pentsatzen. Errespetu gehixo dao eta holakorik ez da ontzat eman bihar.

**HERRI-  
GAIN**  
**ERRETEGIA**  
San Pedro auzoa 4  
(☎ 74 30 40) ELGOIBAR

**MIREN**  
arraindegia

Santa Ana  
74 34 49  
**ELGOIBAR**

**XABIER**  
ILEAPAINDEGIA  
*Eskatu  
eguna eta ordua*  
San Bartolome 13, Tel. 74 19 97

**ZALDUA**  
**ITURGINTZA**  
GAS ETA BEROGAILU  
INSTALAKUNTZAK  
Urasandi 26. Tel: 74 05 30

## ■ Ezindu fisikoentzako egonaldiak Errioxan

Udal Ongizate Sailak Errioxako Lardero herrian ezindu fisikoentzako egonaldia antolatu du Ezinduen Errekuperazio Zentroan. Izena emateko aukera badago oraindik 74 10 08 zenbakira deituz.

## ■ Odol ateraldia

Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteko talde bat Elgoibarko egoitzan izango da gaur, ostirala, aurrez deitutako guztiei odola ateratzeko. Odola emateaz gain, bazkide babesle ere egin daitekeela gogorarazi nahi du elkarteak.

## ■ Ibilgailuen errolda

Pasa den astelehenean izan zen Gobernu Batzordeak Elgoibarren dauden ibilgailuen kopurua onartu zuen. Padroiaren arabera, 4.390 ibilgailu daude. Horrela, ibilgailuen zergen bidez 45.023.930 pta. bilduko ditu aurten Udalak.

## ■ Helduen Etengabeko Heziketarako matrikula

EPA edo Helduen Etengabeko Heziketarako ikastaroan izena emateko matrikulatzeko epea zabalik dago oraindik. Klaseak Pedro Muguruzako ikastetxean ematen dira urte osoan zehar eta helburua alfabetizatu gabeko helduei irakurtzen, idazten eta oinarriko zenbait kontzeptu interpretatzen irakastea da. Izena emateko Pedro Muguruza ikastetxeko 74 08 80 zenbakira deitu.

## ■ Zazpiki irratia bilera larunbatean

Zazpiki irratia bilera egingo du larunbatean, hilak 24, goizeko 11,30etan. Zazpikiko lokalean izango da bilera eta hara ager daitezten eskatzen zaie irratizaletu guztiei.



**Betirako inor ez omen gara,** nahiz eta gehienon nahia ahalik eta gehien irautea den. BARRENen ere beste horrenbeste pasa da. Nekane Etxanizek bi urte pasatxo astekarirako publizitatea lortzen jardun ondoren, Myriam-i pasa dizkio publizitatearen karpeta eta bestelakoak. Ez da lan erraza izan Nekanerena, urtean 11 milioi inguru lortzeko ardura izan baitu bere gain. Baina lanak gogorak direnean, langilea ere gogortu egiten da. Nekanek, zailtasun guztiei aurrea hartuz, helburu ekonomiko guztiak bete ditu. Orain Myriam-en txanda da. Gogoia eta ilusio berriak dakartza besapean eta hori garrantzitsua da zeregin berri honi behar bezala eusteko. Beraz, mila esker Nekaneri eta zorte on Myriam-i!



**Niort-eko frantses ikasle** hauek Gestio Eskolara etorri ziren astebeteko bisita egitera. Otsailaren 12tik 22ra bitartean Elgoibarren izan dira Gestio Eskolaren martxa, Deba Beheko inguruak eta enpresak ezagutzen, bertoko ohitura eta jai giroan bizi izateko aukera izan dutelarik. Gure herrian izan diren egunetan bertoko familietan izan dute ostalua eta Elgoibarko kaleen argazkiak ere atera omen dituzte, gero, hangoei erakusteko.

## Madrileko Kongresurako PNVren bosgarren hautagaia da Isaac Loiola elgoibartarra

Isaac Loiola martxoaren 3ko hauteskundeetako PNVko hautagai zerrendako bosgarren lekuan dago Kongresura aurkezten den lehendabiziko elgoibartarra izanik. Astelehenean egin zuen aurkezpenean, PNVko hautagaiak Madrileko Kongresurako alderdiak prestatutako programaren zenbait puntu aipatu zituen. "Programa errealista eta ez demagogikoa da gurea" esan zuen Loiolak, "Autonomi Estatutuaren erabateko garapenaren alde egingo dugu lan eta Ajuria Eneako puntu guztiak betearaztea da gure asmoa, ez baita terrorismoaren aurkako hitzarmena soilik, arlo sozialak ere baditu". Kongresurako hautagaia bakea lortzeko elkarrizketaren alde eta Estatuko ordezkarien figura eza-batzearen alde agertu zen. Era berean, gastu publikoa murriztu, inflazioa kontrolatu eta interes tipoak jaitsi, INEMen erreforma eta transferentzia eskuratu, gazteentzako lanpostuak bultzatu, kosta eta portuen legea aldatu hauen transferentzia eskuratzeko,



"euskal Y" bultzatu eta autopisten peajeak gestionatu, hezkuntza eta osasun sistema sendotu, intsumisioa ez zigortzeko ahaleginak egin eta Ordezko Zerbitzu Soziala erregulatu, pentsioak soldata interprofesionalarekin parekatu eta beste zenbait puntu aipatu zituen. Euskal talde parlamentarioa osatu nahiko luke PNVk, Isaac Loiolaren esanetan. Legealdiaren

balantzea egin zuen Isaac-ek. "PSOE-rekin elkarlanean aritu gara euskaldunon interesak jokoan egon direnean. Gure nahia Gipuzkoan bigarren ordezkaria lortzea da, lehen 2.000 boturen faltan geratu baikinen. Pena emango liguke botu horiek HBk eskuratzea, gero ez baitira parlamenturara joaten. Euskal interesen defentsa Madrilén guk bakarrik egiten dugu".



**Gestio Eskolak** antolatutako forum-a burutu zen pasa den asteazkenean Erreminta Makinaren Institutuan. IDAK aholkularitzako Alfonso Vazquez zuzendaria eta FUCHOSA S.A.ko Jose Ramon Guridi zuzendaria izan ziren hizlari. Ikasketa prozesuari buruz berba egin zuten, enpresen zerbitzuen hobekuntzarako ikasteko ahalmena duten organizazioei buruz, hain zuzen.

### ■ HBren ekitaldi politikorako autobusa

Elgoibarko HBk autobusa antolatuta du bihar, hilak 24, Donostian izango den ekitaldi politikora joateko. Autobusa Plazatik aterako da arratsaldeko 4etan.

### ■ Emakumearen eguna

Datorren martxoaren 8an, Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna ospatuko da. Egun hori kontuan hartuta emakumeekin loturiko saioak antolatu ditu Udalak. Batetik, martxoaren 5ean, asteartea, pelikula berezia emango da Herriko Antzokian gaueko 22,00etan, "Nadie hablará de nosotras cuando hayamos muerto". Eta bestetik, martxoaren 8an, ostirala, Tanttaka taldeak "Denak errudun" lana antzetzuko du Herriko Antzokian.

Montse Arregi:

## "Elkarrizketa, azken finean, jolas bat da"

Montse Arregik 29 urte ditu. Kazetaritza ikasketak egiten ari zela "Aizu!" aldizkarian hasi zen zenbait kolaborazio egiten. Bertako erredakzio taldeko partaide izan zen eta, orain bost urte, Egunkaria sortu zenean,

Bilboko erredakzioan hasi zen lanean, ekonomia arloan. Urtarrilean, berriz, kulturara pasatu zen. Makina bat urte daramatza kazetari lanean baina aitortu digunez, bera ez da kazetari sentitzen.

- Ez al zara kazetaria?

- Nik ez dot sekula esaten kazetarixa naizenik. Galdetzen dienian, egunkarixan lan eitzen dotela erantzuten dot, edo erredaktoria naizela, letren langilia. Iruditzen jata kazetari hitza ponposo samarra dala edo.

- Lan bokazionala da?

- Ez da txikitako bokaziua izan. Beti izan naiz kuriosa samarra, ez dakitx horrek eraginik eukiko daban. Batez ere, ikasketak atseginak izango ziala pentsatzen nabalako hasi nitzan karrera horrekin. Eta gustora.

- "Aizu!" eta Egunkaria. Bestelako mediorik?

- Oin arte prentsa idatzixan bakarrik aritxu naiz. Kuriosidadia bada kat baina ez naiz kamara edo mikrofono aurrian ikusten. Nahixao dot lasai lasai ordenadore aurrian jartzia eta borrau bihar dana borratzia, gustora geratu arte.

- Egunkarian Ekonomia arloan hasi zinen.

- Bai. Ni beti izan naiz egunkarixa hartu eta ekonomiako orrixak begiratu gabe pasatzen ditzuzten horietakua. Baina, ekonomian hasi bihar izan nitzan eta poliki-poliki ikasi eitzen dozu. Eta



"Ez naiz mitozalia, jende arruntak enkanto haundixa daka"

engantxatu egiten zaitxu, ekonomiak gizarte hau nola mobitzen daban konturatzen zera. Oin heldu da momentua batzutan ekonomia bakarrik irakurtzen dotela, "deformación profesional total".

- Halere, Kulturaren hasi berri zara.

- Bai, eta ez naiz damutzen. Halere, piskat kostatzen ari jata ze erabat ezberdina da. Ekonomian hitz teknikuauak dia eta kulturaren lizentzia dakazu literatura piskat eitzeko.

- Ba al dute loturarik

kulturak eta ekonomiak?

- Kanpotik begiratuta bi mundu ezberdin dia. Baina kulturaren ere ekonomia mugitzen da eta interesak daude. Gughemgeinen kasuan, kulturalki eman dezakeenaz gain, joku ekonomiko haundixa dao, inbertsioak erakar ditzake, beste irudi bat izango du Bilbok nazioarte mailan...

- Geratu zaizun gairik?

- Labe Garaien eraiaketaren lekuko izan nitzan eta asko inpresionatu ninduen bizitza guztia lanean eman daben pertsonak

egun batetik bestera kalia ikustiak.

- Nor elkarrizketatu nahi zenuke?

- Ez naiz mitozalia. Kaleko edozein artista izan laike famatu bat bezain interesgarria. Egunerokotasuna gustatzen jata, jende arruntak enkanto haundixa daka.

- Elkarrizketa on baten meritoa norena da?

- Bai kazetariarena bai eta elkarrizketatuarena ere. Galderak onak izateaz gain, besteak ere jokua eman behar du erantzunekin. Batzutan gertatzen da elkarrizketatuak monosilaboenkin bakarrik erantzutea. Azken finean bi pertsonaren arteko jolasa da, batzutan batek irabazten dau, beste batzuetan besteak...

- Zein da zure ametsa?

- Ez jata gustatzen planak eitzia epe luzera, momentuz ondo nao Egunkarian. Ametsak beti hor daoz. Kanpora joan, Ameriketara eta erreportaiak eitzia... ametsak besterik ez dia eta igual horregatik dia politxak.

- Zer moduz elkarrizketatu bezala?

- Nahixao dot elkarrizketatzailea izatia, dudaripe.

# kili**BARRREN**

Mendaroko gehigarria

Otsailaren 23a

26. zkia.



1

**F**ilabete honetako argazkia **Jose Antonio Iriondok** utzi digu. Berak esandakoaren arabera 1953an ateratakoa da. Egun horretan arkume jana egin omen zuten eta ikus daitekeenez ondo ospatua gainera, bata soinuarekin, bestea ardo botilarekin...

Hona hemen argazkian agertzen direnen izenak:

Atzeko aldean leihoan: **Miren Iriondo** eta **Ignacio Mari Garate** (†).

Atzean: **Andres Iriondo** (†), **Pedri Garate** (†), **Manuel Garate**, **Ignacio Zabala** (†), **Isidro Arrillaga** (†), **Jose Arrillaga** (†), **Isidro Arrillaga**, aurrekoaren iloba (†) eta **Juan Mari Iriondo** (†).

Aurrean: **Enrike Gallastegi** (†), **Pedro Iriondo** (†), **Josefa Mugerza** (†) eta **Julian Arrillaga**.

# Etxe bat nahi dut

**M**endaro herri gaztea dela ezin da ukatu. Baina herri gazte bat aurrera ateratzeko etxebizitzak behar dira. Orain denbora gutxira arte herriko gazteek kanpora joan behar izaten zuten bizitzera Mendaron etxebizitzarik ez zegoelako. Betiko arazoa izan da, beraz, Mendaron etxebizitzarena. Terreno faltarik ez dagoen arren aurrerapauso bat eman behar da. Duela hiru urte frontoi pareko kooperatiba-etxeak eraiki ziren eta oso esperientzia ona izan dela azpimarratu digute kooperatibako partaideek. Honen seinale orain egiten hasi diren kooperatiba-etxeak. Halere, Mendaron eraiki berri diren azken etxebizitzak



Dagoeneko eraikitzen hasi dira kooperatibako beste 18 etxebizitza. Argazkian maketa.

ez dira kooperatiban bakarrik izan. Saturraranen esaterako, promotora pribatu batek eraiki zituen hainbat etxebizitza. Gai honi buruz zerbait gehiago jakiteko

asmoz kooperatibetako eta promotora pribatuetako etxebizitzak erosi dituztenengana jo dugu.

Kooperatibakoen esanetan, lehenbizi, inmoiliariadunak publizitatea

egiten du etxeak eraikitzeke. Interesaturiko jendea biltzen denean kooperatiba osatzen da. Logikoki, kooperatiba osatuko dute eraikiko diren etxebizitzetan bizi-

### Lur urbanizatuak eta urbanizagarriak

■ GAUR EGUN ERAIKITA DAUDEN ETXEAK:  
Guztira 35 etxebizitza  
- Pribatuak 17  
- Kooperatiban 18

■ ERAIKITZEKO BAIMENAK:  
Guztira 48 etxebizitza  
-Pribatuak 30  
- Kooperatiban 18

■ ERAIKITZEKO AUKERAK:  
Azpilgoetan 54 etxebizitza  
Etxeberrin 107 etxebizitza



ko diren pertsonek eta kooperatiba orotan bezala, hauetan ere idazkaria, lehendakaria, diruzainak, etab. aukeratzen dira. Kooperatiba modura egiteak duen abantaila bat, ordainketak gutxika gutxika egiten direla da. Hau da, hasieran, etxeak eraikitzen hastean, sarre-  
ra bat jartzen da eta bukaeran gainontzeko guztia. Gainera, kooperatibakoen esanetan, etxebizitza nork bere gustuetara egokitzeko aukera du. Bakoitzak erabakitzen du metro karratuak nola banatu, egongelari zenbat eman, logelari edo sukaldari...

#### Promotora pribatua

Kasu honetan guztiz ezberdina da. Erosleak etxebizitzak eraiki behar dituen promotorearenga-

na jotzen du eta berak nahi duen etxea aukeratzen. Erosoagoa da etxea era honetara erostea. Kooperatibistek beraiek arduratu behar izaten dute detaile guztiez; beste erara, aldiz, promotora da arduraduna, hasieratik amaierara arte. Etxeak eraikitzen hasi baino lehen eros daitezke eta kasu honetan, batzuetan izaten da aukerarik aldatetaren bat edo beste egiteko. Besteetan, etxea dagoeneko eгина dagoenean erosten da. Promotora bidez eginiko etxebizitzak garestiagoak izaten dira. Honen arrazoia, promotorak eraiki eta gero saldu egiten dituztela da. Kooperatiben kasuan, berriz, kooperatibistak beraiek dira promotoreak nolabait.



Promotora pribatu bati erostea erosoagoa da.

## Etxebizitzak behar al dira Mendaron? Eroste-kotan pribatua ala kooperatibakoak erosiko zenituzke?



### Igor Rey

21 urte, ikaslea

Ondo iruditzen zait Mendaron etxebizitza gehiago egitea. Horrela gazteek aukera gehiago dute herrian bertan gelditzeko. Nik aukeratzekotan kooperatiba aukeratuko nuke, etxeak merkeagoak izaten direlako. Lan gehiago egin behar izan arren aukera handiagoa ematen du kooperatibak gazteek etxeak eros ditzaten.



### Joseba Zulaika

28 urte, tabernaria

Kooperatibak eta promotora pribatuek badituzte bere abantaila eta desabantailak. Nire ustez, kooperatibako etxeetan norberak aukera dauka etxea nahi duen bezala eraikitzeko. Promotora pribatu-  
etako etxebizitzetan aldiz, ez dago aukerarik. Etxea eгина dagoenez, erostea besterik ez duzu. Nik momentu honetan ezingo nuke esan zer motatako etxea erosiko nukeen. Garaia iristean bi aukerak kontuan izango nituzke eta erabakia ondoren hartuko nuke.



### Edurne Zulaika

25 urte, dendaria

Ondo iruditzen zait Mendaron etxebizitzak egitea. Uste dut Mendaron bada goela beharra eta jendea aukera horren zain dagoela. Gainera ez daukate kanpora joan beharrik etxeak badaude. Aukeratzekotan kooperatibako etxebizitzak iruditzen zaizkit egokienak, merkeagoak direlako eta aukera gehiago ematen dielako etxea egiterako orduan.

## Santa Ageda eskea

Mendaroko Gazteak dantza taldeak eskerrik beroenak luzatu nahi dizkie lerro hauen bidez mendarotar guztiei eta bereziki Santa Agedako eskean ibili zirenei. Guztira 340.000 pta. batu ziren herriko kale eta baserrietan. Behin gastuak kendu ondoren, 235.000 pta. geratu dira dantza taldearentzat.

## Aingeru Guardako jaiak

Datorren igandean, martxoak 3, Aingeru Guardako jaiak ospatuko dira Plaza auzoan. Eguerdiko 12etan meza izango da eta ondoren, Agirre eta Lazkano bertsolariak eta Garikoitz eta Andoni trikitilariak entzuteko aukera izango da. Eguerdiko 2etan lagunarteko bazkaria egingo da Aizpen bertsolari eta trikitilariak alaitutako giroan. Bazkaltzera joan nahi duenak 75 50 07 (Migel Angel) telefonora dei dezala, osteguna baino lehen.

## 4 Gazte inkesta

Mendaroko Udalak, herriko gazteen problematika ikusita, 15 urtetik 27ra bitartekoei zuzendutako inkesta bat prestatzea erabaki du. Kontsulta hau izengabea izango da, hau da, ez dira sinatuak joango, eta martxoaren 4a baino lehen Txirristaka, Ormola, Toki-Alai eta Arboleta tabernetan eta Udaletxean ipiniko diren kutxetan laga daitezke.

Martxoaren 30ean, larunbata, goizeko 11etan bilera bat izango da gazteekin Kultur Etxean eta bertan inkestaren emaitzak ezagutarazteaz gain, ekimenak proposatu eta helburuak finkatzeko aukera egongo da.

## Kros herrikoia

Martxoaren 24an, igandea, Mendaroko XVII. Kros Herrikoia izango da. Kategoriak eta ibilbidea iazko berdinak izango dira. Informazio gehiago jaso nahi duenak, 75 61 00 telefonora dei dezake goizeko 8etatik 3etara bitartean.



## Santana jaiak

Dagoeneko hasia dago udala Santana jaien antolakuntzan. Gazteen Egunari dagokionez, urtero bezala, herriko kuadrilen artean erabakiko da programa. Datorren astelehenean, hilak 26, Udaletxeko Pleno Aretoan bilera egingo da iluntzeko 7etan gai horri buruz hitz egiteko. Beraz, herriko gazteei dei egiten zaie bilerara ager daitezen.



## Ihauteriak ikastolan

Joan zen ostiralean, hilak 16, Ikastolako haurrak mozorrotu egin ziren aurtengo ihauteriak ospatzeko. Haurrak Ikastolako patioan elkartu ziren eta era guztietako mozorroak ikusteko aukera izan zen. Jolasak antolatu ziren, besteak beste, sagar jolasa, arto biltzea... Lehenik eskolaurreko haurren txanda izan zen eta hauek uztaiekin ibili ziren jolasean. Ekitaldia arratsaldeko 3etan hasi zen eta amaieran txokolata banatu zen haur eta gurasoen artean.

kiliBARREN

Kolaboratzaileak: Joseba Etxeberria, Oihana Tarragual eta Elena Zubiaurre.



Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua



## Amaia Arrizabalaga

### Garay Harategikoa



- Hiltegian dagoen txahala bazina, zein izango litzateke zure azken desioa? ▶ Bizitza salbatzia.
- Zezena bazina nori sartuko zenizkioke adarrak?  
▶ Usten dot inork ez dabala merezi.
- Mingain luzea zara? ▶ Ez.
- Zeri egiten diozu kasu, bihotzari ala buruari? ▶ Bihotzari.
- Zein ordutan egiten du zuenean kukurruku oilarrak?  
▶ 7ak eta laurdenetan.
- Gaztetan txuletei esker aprobatu al zenituen azterketak?  
▶ Gutxitan.
- Zerk jartzen dizu gibleko mina? ▶ Gaur egungo indibidualismoak, bakoitzak beria bakarrik begiratzen dau.
- Hegoak bazenitu nora joango zinateke? ▶ Canadara.
- Zeren aurrean jartzen zara ardi bat otsoaren aurrean bezala?  
▶ Egoera ezezagunen aurrian.
- Zein animaliarekin parekatzen zara?  
▶ Bildotsekin, bildurtiak direlako.
- Eta zein izan nahi zenuke? ▶ Txoria, nahi dudanean alde egiteko.
- Aberasteko era erraz eta azkar bat?  
▶ Lapurreta, baina ez dut uste merezi duenik.
- Paperezko ala telazko musuzapiak? ▶ Paperezkoak.
- Goizean dutxa hotza ala gauetan beroa?  
▶ Nahixao dot gabian dutxa berua hartzia.
- Zortea, kasualitatea ala ahalegina?  
▶ Bizitzan gauzak norberan ahaleginan ondorioz lortzen dia.
- Zein plazerri egingo zenioke uko? ▶ Ahal badot bati ere ez.
- Zein tb. kate gustatzen zaizu gehien?  
▶ Ez dot asko ikusten baina danetik piskat.
- Barruko erropa zuria ala beltza? ▶ Zuria.
- Zer izan nahi zenuen umetan? ▶ Ez dakit.
- Seme-alabei zein izen jarriko zenieke?  
▶ Neskia balitz, Garazi; mutila balitz, ez dot sekula pentsatu.

## VALDEZCARAY-RA IRTEERA

### DOINUA:

Txoriak eta txoriburuak

Gu otsailaren hamabostean  
kriston hotzakin gainera  
Institutuko lagun taldea  
Valdezcaray aldera  
bastoiak hartu, eskiak hartu  
ta lehenengoan lurrera  
bost bat urteko ume ziztrin bat  
adarra jotzen gainera.

Egun horretan hartu genuen  
guztiok hainbat eguzki  
itxura behintzat eskasa ez zen  
hainbat praka ta beroki  
baina lurretik inolaz ere  
inortxo ezin zen jaiki  
azken finean inortxok ere  
ez zuen pasatu gaizki.



KEPA MENDIKUTE



*Familiakoren bat edo lagunuen bat hiltzen bazaizu BARRENEk  
sentimenduan lagundu eta eskelak, urteurrenak edo esker onak  
azaltzeko toki bat eskaintzen dizu.*



## Martxoaren 3ko hauteskunde mahaietan egongo direnen izen zerrendak atera dira

**M**artxoaren 3an izango dira Estatu mailako hauteskunde orokorrak. Hori dela eta, Elgoibarko mahai ezberdinetan egon behar duten mahaiburu eta mahaikideen izen-abizenak atera dira dagoeneko. Alboko laukian ikus daiteke zerrenda. Horiez gain, ordezkokoak ere izendatuta daude.



### Martxoaren 3an hauteskunde mahaietan egongo diren elgoibartarrak

#### ■ Plaza Txikian ■

- Cristobal Beristain (mahaiburua)
- Candido Boo (1. mahaikidea)
- Maria Borreguero (2. mahaikidea)
- Alberto Perea (mahaiburua)
- Ana Perez (1. mahaikidea)
- Fco. Jose Pinilla (2. mahaikidea)

- Jose Luis Bastida (mahaiburua)
- Maria Izaskun Belategi (1. mahaikidea)
- Maria Dolores Beloki (2. mahaikidea)
- Ana Isabel Ruiz-Poveda (mahaiburua)
- Diego Del rey (1. mahaiburua)
- Fco. Javier Rezola (2. mahaikidea)

- Purificación Astigarraga (mahaiburua)
- Maria Teresa Ayerbe (1. mahaikidea)
- Luis Fernando Ayesta (2. mahaikidea)
- Ana Rementeria (mahaiburua)
- Pedro Del Rio (1. mahaikidea)
- Francisca Roa (2. mahaikidea)

#### ■ Pedro Muguruzako eskoletan ■

- Marina Colina (mahaiburua)
- Maria Pilar Cruz (1. mahaikidea)
- Valentin Churruca (2. mahaikidea)
- Santiago Retolaza (mahaiburua)
- Ana Rodriguez (1. mahaikidea)
- Celestino Rodriguez (2. mahaikidea)
- Jose Maria Fernandez (mahaiburua)
- Antonio Gallardo (1. mahaikidea)
- Juan García (2. mahaikidea)

#### ■ San Rokeko hartzaindegian ■

- Maria Cruz Arnedo (mahaiburua)
- Nicolas Pedro Arrieta (1. mahaikidea)
- Maria Cruz Arrieta (2. mahaikidea)
- Jose Luis Odria (mahaiburua)
- Juan Odria (1. mahaikidea)
- Tomas Odria (2. mahaikidea)

#### ■ Jubilatuen Etxean ■

- Manuel Etxaniz (mahaiburua)
- Maria Carmen Elorza (1. mahaikidea)
- Maria Nieves Elorza (2. mahaikidea)

#### ■ Urasandiko eskolaurrean ■

- Javier Cerezo (mahaiburua)
- Felipe Cobos (1. mahaikidea)
- Severiano Codesal (2. mahaikidea)
- Constancio Nuñez (mahaiburua)
- Angel Maria Oñederra (1. mahaikidea)
- Maria Amaia Oñederra (2. mahaikidea)

#### ■ Santa Klarako eskolan ■

- Javier Larrañaga (mahaiburua)
- Nerea Loyola (1. mahaikidea)
- Victor Jose Martin (2. mahaikidea)

#### ■ Altzolan ■

- Alfonso Rubio (mahaiburua)
- Juan De la Cruz Uriguena (1. mahaikidea)
- Fco. Javier Usatorre (2. mahaikidea)

JOSE ANGEL ZABALA

**URDAITEGIA**

Berezitasunak:

Bakilaua

Merkatu Plaza 33-34

**GARAY**



San Frantzisko, 9. Tel. 74 13 92

**OIERKI** IGOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

☎ (943) 11 35 15 ● ☎ ABERIAK (943) 11 35 15  
Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR

## Karkizano Palazioa

- Martinen semea, Juan Martin Arriaga izan zen ondorengoa. XV. mendean, Arriaga auzoan Santi Spiritus eta Arriagako Andra Maria Pietatearen eliza eta ospitalea sortu zituen, gerora San Antolin izenaz ezagutu genuena.
- Ondoren (1516-1520), Martin Sanchez etorri zen, Joanen seme nagusia. Aita bezala, bailarako burdinolen alkatea izan zen eta "Koroari" eginkizunen bat ere egin zion. Joane bere bigarren ezkontzan izan zuen semeak, Sebastian Karkizanak, jarraitu zuen dorretxearen burutzan.
- Sebastian Maltaan hil zen turkiarren kontrako gerran. Ondorengoa, bere arreba Maria Joana izan zen. Halere, Maria Joana Karkizanoko dorretxe eta ondasunez aurrez jabetu zen anaia zor handietan sartuta baitzegoen.
- XVII. mendearen lehen laurdenean, ondorengo zuzenik ez zegoenez, maiorazgoa Joan Martinez Karkizanoren alaba baten ondorengorengana pasatu


zen, Maria Anton Zabala. Aurrerantzean Karkizano eta Zabala maiorazgoak elkartu egin ziren.

- XVIII. bukaera aldera Maria Rita Erkizia eta Arriolak jaso zuen ondare haundi hau, berau izanik Elgoibarko zerga ordaintzailerik handiena.
- Maria Ritaren senarra, Pedro Martin Larrunbide, eta bere anaia, Joseph Ignacio Arriola buruzagi izan ziren beste 300 elgoibartarrekin batera, 1793. urteko abuztuaren 26an, Loiolako basilika eta etxea iraultzaile liberal frantziarren menpe zeudelarik, barruan sartu eta frantziarrei Loiolako altxorra kendu ondoren, Segoviako "Real sitio de S. Ildefonso" Carlos IV.a erregearen jauretxera eraman zutenak.
- Jose Maria Larrunbide izan zen hurrengo maiorazgoa. Ondoren, Aldasorotarrak etorri ziren, hauekin amaitu zelarik leinuaren ondarea.

PELLO ARRIETA



## Don Jose Juaristi Parrokoa (1958-1965)



- Azkoitin jaio zen 1909an.
- Gizon argia zen. Teologia eta Filosofian dokotoretza egin zuen Comillas-eko Eliz Unibertsitatean.
- Euskalzaile eta abertzale izateak gartzela ezagutzera eraman zuen gerra garaian. Santanderreko gartzelan egon zen preso. Ondoren, Lauzirika gotzaiak Granadako gerra frontera bidali zuen ejerzitoko kaperau modura.
- 1958ko abenduaren 8an hartu zuen Elgoibarko San Bartolome elizaren parroko kargua.
- Pertsona oso estimatua zen herrian. Izakeraz jatorra eta bihotz onekoa, bes-teen arazoak entzuteko dohaia zeukan.
- Zezenak izugarri gustatzen zitzaizkion. Sasoi hartan apaizek zezenketak ikustera joatea debekatua bazuten ere, Bilbon ospeko toreatzaileraren bat baze- goen, nola edo hala, korrida ikustera joateko moldatzen zen.
- Eskoriatzara zihoala apaiz baten hiletara, auto istripuz hil zen Saturixon 1965eko abuztuaren 30ean 56 urtere- kin.

## I. URTEURRENA



1995eko otsailaren 27an hil zen **ESTHER IRURETA AGIRREGOMEZKORTA**ren oroimenez *urtemeza* izango da larunbatean, martxoak 2, arratsaldeko 7etan Parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik mila esker.



## MOTZAK

### Larunbatean Bolo finalak izango dira San Pedron

Larunbatean, hilak 24, Bolo Txapelketako finala jokatuko da San Pedron. Arratsaldeko 8etan hasiko da eta ondoren izango da sari banaketa. Horrez gain, nahi duenak aukera izango du San Pedron bertan afaltzeko. Momentuz sailkapena horrela dago: banaka, Inazio Kortaberria dago lehen postuan, San Pedrokoa eta 15 txirlorekin. Bigarren, Jesus Mari Azpiazu, San Pedrokoa hau ere eta 14 txirlorekin eta, hirugarren, Iker Izagirre sanmigeldarra, 13 txirlorekin. Taldeka, berriz, San Migel auzokoak daude aurreneko postuan 41 txirlo dituztelarik. 40 txirlorekin San Pedro eta hirugarrenik San Roke B, 38 txirlo dituztelarik.

### Laguntzak eskubaloi eta txirrindulari taldeei

Elgoibarko Udalak 400.000 pta.ko diru laguntza emango dio C.D. Elgoibar Eskubaloi Taldeari 1996. urteari dagokion laguntza modura. Eskubaloi taldeak lau talde ditu aurtengo denboraldian: kadeteetan bi, neskena eta mutilena, jubeniletan mutil taldea eta seniorretan ere mutilena. Bestetik, 700.000 pta.ko diru laguntza emango zaio Elgoibarko Txirrindularien Lagun Taldeari.



Josu Ibarra:

### "Derby-etan pikea izaten dugu etxean"

■ **Espainiako selekzioan zaude.** - Bai, 18 urtez azpitikoan. Nik baino lehen taldekoek jakin zuten selekzionatu nindutela. Irratian entzun nuen notizia eta Canarias-era joan nintzen txapelketa batera.

■ **Notizia pozgarria** - Oso. Espainiako onenak daude hor; selekzio mailan aspiraziorik handiena da.

■ **Atzerrira joateko aukerarik?** - Hurrengo txapelketan Noruegaren aurka jokatuko dugu, baina beti ere konbokatuta egin behar zaituzte.


■ **Zenbat denbora daramazu Errealean?** - Lau urte. Infantiletan hasi nintzen, gero kadeteetan eta orain Sansen nago.

■ **C.D.tik Errealera.** - Oso pozgarria izan zen. Errealak Gipuzkoako selekzio modukoa da, eta hor jokatzeak Gipuzkoako onenen artean egoitea suposatzen du.

■ **Lehen dibisioan jokatzeak aukera izan dute gazte batzuek. Zeurea noiz?** - Goiz da oraindik. Zaila ikusten dut. Aukera eman behar dizute eta gero zortea eduki.

■ **Entrenatzaile berria duzue.** - Inaxio Kortaberria da gure entrenatzailea eta, egia esan, oso gustura nago. Kadeteetan ere entrenatzailea izan nuen eta oso harreman onak ditugu.

■ **Talde bat gaizki doanean errua entrenatzaileari**



**egozten zaio.** - Filialetan ez hainbeste baina lehen mailan bai. Emaitzak onak ez badira entrenatzailearen ardura izaten da. Gerta daiteke entrenatzailearen sistema txarra izatea eta ekipoak ez funtzionatzea. Jokalariak izan dezakete errua baina gehienetan entrenatzailearena izaten da.

■ **Etxean oso futbolzaleak zarete.** - Arrebak Eibartarrak taldean jokatzen du eta aitak inguruko taldeetan jokatu zuen urte askotan.

■ **Ekipo berekoak zarete denak?** - Ez, aita eta arreba Athletic-ekoak eta ni, berriz, Errealzalea. Beraz, Derbya dagoenean pikea egoten da.

■ **Atzerritar asko dago Errealean.** - Gaizki iruditzen zait bertokoei pasoa ixten zaielako baina Espainian jokatzeak beharrezkoak dira atzerritarak.

■ **Numanciaren abentura?**

- 2.Bko talde batek lehen mailako taldeei irabaztea meritua dauka. Bartzelonaren aurka zorte piska bat gehiago izan balu... Beti pozten zara ekipo apal batek haundi bati irabazten dionean.

• Adina: 17  
 • C.D. Elgoibar ala Erreal? Erreal  
 • Kinielarik egiten duzu? Bai, baina ez dut sekula azertzen  
 • Zeri aterako zenioke txartel gorria? Biolentziari

HEZETASUNARI  
 ITOGINEI  
 FILTRAZIOEI

**EZ**

GORENGO  
 TEKNOLOGIA

ESTALKIAK, TERRAZAK, HODIAK, SOTOAK,  
 ---Aurrekontuak konpromezurik gabe---

glas control s.l.  
 Ubitarte 7 - ELGOIBAR  
 Tel.: 74 30 94 - 74 35 46

**INTURAK**

PEDRO PEREZ BERISTAIN

San Roke, 30 behe. ☎ 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA


# Martxoan irekiko dute Mintxetako muskulazio gela

Mintxetako harmailak konpondu bezain pronto, eta azken egunotako elurteek uzten badute, Mintxetako muskulazio gela berriz jarriko da martxan. Martxoaren hasiera edo, izango dela kalkulatzen du Udalak. Haizeak Mintxetako harmailetak erretaila eraman zuen duela hiru hilabete eta hori dela eta, euri-putzu handiak sortu ziren azpiko geletan.

**U**rtarril amaieran muskulazio gela ixtea erabaki zuen Udalak. Plastinox enpresako langileak dira konponketa lanetan ari direnak. Azken asteotako euri eta elurteak eragindako atzerapenen ondoren, dagoeneko oso aurreratua daude lanak. Bi aste epea zuten jarrita erretaila berria egiteko, hortaz, hil bukarerako amaituta egon daitezke konponketa lanak, beti ere eguraldiak uzten badu. Erretaila berriak haize handien aurkako erretortzua izango du. Tornilo eta zutabe indar-tsuagoak jarri dira horretarako. Kalteen zenbatekoa 800.000 pta.koa zela esan zuten hasieran baina litekeena da lanak amaitzean gehiago izatea. Orain, lanak ordaintzea nori dagokion zehaztu beharko da, Udalarari ala Brues enpresari.

## Martxoan muskulazioa irekita

Otsailaren amaierarako dena prest egonez gero, futbol partiduak aterpetik ikusi ahal izango dira eta



**Eguraldiaren arabera bukatu ahal izango dira Mintxetako konponketa lanak. Martxorako izatea espero du Udalak.**

martxoaren lehenengoetan muskulazio gela berriz irekiko dute. Irekiera aprobetxatuz kirol zerbitzua hobetu nahi izan du Udalak eta makina berriak jertzeko asmoa du. Honez gain, aerobic-a emateko asmoa ere badu. Talde mugatuak osatuko dira eta muskulazio gelaren aldamenekoan izango dira klaseak.

# KIROL

## EMAITZAK

### Futbola

Aloñamendi 1 - **Haundi 0**  
Elgoibar 2 - Dunboa 0 (**1. erreg.**)  
Aretxabaleta 1 - Elgoibar 2 (**Jubenilak**)  
Elgoibar 0 - Almen 1 (**Infantilak**)

### Saskibaloia

Elgoibar **71** - Lesaka **45**

### Areto Futbola

Elgoibar 2 - Puerto Pasajes 2 (**1. maila**)  
Elgoibar 5 - Beti Gazte 2 (**2. maila**)

## AGENDA

### Futbola, Mintxetan

#### Larunbata, 24

11,15 S.D. Eibar - Zarautz (**Kadeteak**)  
13,00 Urki - Gazteak (**2. erreg.**)  
17,00 **Haundi** - Vasconia  
19,00 Eibartarrak - San Juan (**Neskak**)

#### Igandea, 25

10,00 S.D. Eibar Urko - Zarautz (**Jubenilak**)  
12,00 S.D. Eibar - Behobia (**1. erreg.**)  
13,45 Gazteak - Urola (**Jubenilak**)  
16,00 Elgoibar - S. Tomas Lizeoa (**Jubenilak**)  
17,45 Urki - Bosocozealeak (**Jubenilak**)

### Saskibaloia, Kiroldegian

#### Larunbata, 24

19,00 Txankakua S. T. - Arruti (Donostia)

### Futbitoia, Urasandin

Igandea, 25 (Arbitraia: s)  
10,00 Ikus Optika - Roke  
11,00 Kosakos - Rebel Urbi  
Sanroketarra - Aldavas  
12,00 Udaberri - Ametsa  
Orbela - S. Braga

## Gimnasia erritmikoa lehen aldiz Elgoibarren

**I**ragan den zapatuan gimnasia erritmikoko Eskolarteko Gipuzkoako Txapelketaren bigarren fasea burutu zen Olaizaga kiroldegian. Ibai Klubak antolatuta, lehen aldiz gimnasia erritmikoa ikusteko aukera izan zen Elgoibarren. Taldekako mailan, Donostiako Amara Berri ikastetxeko taldea geratu zen irabazle alebin eta infantiletan eta jubenetan Hernaniko Agustin Iturriaga Institutua. Banakakoan, donostiarrek eskuratu zituzten lehenengo postuak. Gipuzkoako 14 talde ezberdin aritu ziren txapelketan eta Ibai Klubeko neskatoek erakustaldia egin zuten, txapelketan parte hartu gabe. Goizeko txapelketari bukaera emateko Elgoibarko Ibai eta Ermuko Jator gimnasioko aerobic-eko ikasleek, Imma Díez irakaslearen zuzendaritzapean, bi koreografia ezberdinen erakusketa egin zuten. Koor-

dinazio perfektuarekin, lehenengo, beroketa koreografia egin zuten eta, ondoren, aerobic ariketa.

### Gimnasia erritmikoa Elgoibarren

Duela hiru urte hasi zen Ibai Kluba gimnasia erritmikoko klaseak ematen. Ermuko Susana Ballesteros da irakaslea, 19 urtera arte gimnasia erritmikoan kompetizioan aritu dena. Gaur egun 6 eta 12 urte bitarteko neska talde bat dago Ibai Kluban. Oso txikitatik, 4 urtetik aurrera, izaten da komenigarria gimnasia erritmikoan hastea. Gorputz osoko ezaugarri fisikoak lantzen dira baina elastizitatea, flexibilitatea, erritmoa eta koordinazioa batez ere. Ariketak elementu ezberdinekin, pelota, soka, uztai, mazak eta zinta konbinatuz edota elementu bakarra erabiliz egiten dira. Bakarkako ariketak ezezik, taldekako ariketak ere egiten dira.



Goian Ibai Klubeko gimnasia erritmikoko taldea. Lerro hauengainean, aerobic erakustaldiaren une bat.

*GEHIENGO BERRIAREKIN  
ZENTRUA DA IRABAZLE*

**EMAN BOTUA**

*ALDERDI POPULARRA*



# Aspaldiko partez, elurra mara-mara

**Z**uriz jantziriko ihauteriak izan ditugu aurten. Astearte goizean zurituta agertu ziren bazterrak eta horrela egon dira, zuri-zuri, iragan diren egunetan. Termometroa zero inguruan ibili zen dantzan, batzuetan bi-hiru gradu gaintik eta gauez zero azpitik ere bai. Batzuentzat notizia pozgarria izan zen elurraren etorrera, ihauteri astea zela-eta eskolan jai zutenentzat eta lanera joan ezinik geratu zirenentzat batez ere, baina ez ohiko bisita honek makina bat arazo sortarazi zituen batean eta bestean. Astearte eta asteazkenean eten egin ziren komunikabideak eta Ertzantzak errepidean ez ibiltzea gomendatu zuen. 634 errepide nazionala irekita egon bazen ere, autobusak eta kamioiak bidean ez ibiltzea eskatu zuen Ertzantzak eta autoa larrialdi kasuetan bakarrik hartzea. Zenbait lekutan kateak behar ziren zirkulatzeko, Azkaraten eta San Migelen esaterako. Baserritar asko herrira jaitsi ezinik geratu ziren baserrietako bideak elurrez estalita baitzeuden. San Migeleko baserrietan esaterako, metro erdiko elurra izan zuten asteazkenean. Brigadakoek mangeraz garbitu zituzten herriko kaleak jendearen joan-etorriak errazte aldera.



**JOSE LUIS  
RIBATE  
ORMAZABAL**

*-Goian bego-*

*Gernikan hil zen  
otsailaren 19an, 59 urte zituela.*

**MORKAIKO Mendizale Elkarte**  
*osetzen dugun guztiok, eskerrik  
zintzoenak eman nahi dizkizugu  
Elgoibarko mendizaletasunaren alde  
egin duzun guztiagatik.  
Eta zauden tokian zaudela, ez ahaztu  
gogoan izango zaitugula.*


**MORKAIKO M.E.**



## Ane Zubia:

# "Kuadruetatik ezin laike jan"

*15 urte ditu Ane Zubiak. Irailean Egur-ek marrazketa ikastaro bat antolatu zuen eta animatu egin zen. Hura bukatzean, oleoarekin hasi zen eta oso gustura amaitu eta jarraitzea erabaki zuen. Institutuan dabil, bigarren mailan, eta bere asmoa zientzi adarrari heltzea da. Marrazketa momentuz afizio bat bada ere, Ane artista bat egina dago. Batek daki zer emango duen!*



**- Umetan etzeko hormak margotzen al zenituen?**

- Sekula ez diate esan baina izan leike. Egixa da denbora guztixan ibiltzen nitzala margotzen. Akuarelak erregalatzen zizkiaten eta edozein toki hartzen nabari pintatzeko. Eskolako liburuak eta kuadernuak dibujoz beteta dauzkat.

**- Orain oleoarekin ari zara, ez?**

- Bai. Astian hiru bider juten naiz lokalera eta han ibiltzen naiz, pintatzen. Etxian ez dakat ez materialik ez tokirik. Batez ere paisajiak pintatzen ditxut, etxiek ez die atenzioa deitzen eta pertsonak margotzia oso zaila da, poliki poliki hasi bihar da.

**- Zenbat koadro dauzkazu zintzilikatuta etxean?**

- Momentuz bakarra. Ein nabari lehenengua da, ez da oso politxa baina amak oso harro ipini zaban. - **Koloreetan baduzu estilo**

**berezirik?**

- Bai. Oin arte beti kopiautako marrazkixak eitzen ditxut. Halere, neri beti urtetzen jata orijinalian baino askoz bizixaua. Ez dot nahitxa eitzen baina egixa da kolore argixak gustatzen jatazela, bizitxasuna.

**- Koloreak, gainera zeuek ateratzen dituzue, ez?**

- Bai. Lokalian oinarriko koloreak dauzkagu: gorrixa, berdia, urdina, horixa, zurixa, karmin edo

granatea eta marroia. Gero, horiek nahastuz beste mila-kolore atera daitezke eta garrantzi handixa dake erabiltzen dozuzen koloreak gero zuk egindako marrazkixa nola geratzen dan ikusterakuan.

**- Hasieran mamarratxo bat izango da ateratzen dena, ez?**

- Bai. Bukaeran ateratzen jatzun marrazkixan azpitan lan asko dao. Guk okumena erabiltzen dogu. Lehenengo, bozeto antzeko

bat eitzen dogu ikatzakin, marrazkixan gitxi gorabeherako bat. Gero, trapu batekin ixa dana borrotzen da, trazak bakarrik geratzen dia. Aguarrasakin lehenengo kopia ematen dozu. Horren gainera zuaz kolore ipintzen, kapa bat eta beste bat... Gustura geratu arte.

**- Konstantzia handia behar da, beraz.**

- Bai, konstantzia eta pazientzia. Inportantia da esku ona eukitzia ere, baina hasieran desesperatzen dana alperrik dabil. Poliki poliki saiatu eta azkenian beti ateratzen da gustuko zeozer.

**- Afizioa besterik ez, Ane?**

- Bai, oingoiz bai. Denbora pasatzeko eta erlaxatzeko. Hala ere, bada ez bada ere, gorde eitzen ditxut koadro guztixak, batek daki egunen batian famosia izango naizen! Baina zaila da. Kuadruetatik ezin laike jan.

*- Kolore bat: Okrea.*

*- Estila bat: Realismoa. Abstraktoa ez jata gustatzen, ez dia ezer esaten.*

*- Pintore bat? Velazquez.*

*- Maniaren bat? Beti radixua eukitzen dot ipinitxa, musikia.*

*- Zenbat pintzel dauzkazu? Lau.*

*- Inspirazioa? Nik ursten dot badanala.*

*- Non ez genuke jarriko koadro bat? Komunian.*



## Garajeak

Garaje itxi bat saltzen da Arregitorren.  
☎ 74 30 81

Lokal bat alokatzen dut Madalan, almagenerako aproposa.  
☎ 74 13 84

Garaje itxi bat ALOKATZEN dut pista beltzean.  
☎ 74 20 09 (gauzez)

Garaje ITXI BAT salgai Santa Ana 46an.  
☎ 58 40 24

Garaje bat ALOKATZEN dut pista beltz azpian. Marraduna eta kotxea garbitzeko aukera.  
☎ 74 01 77

Garaje bat SALDU nahi dut. Marraduna. Pista beltzean. Oso merke.  
☎ 45 49 29

## Etxebizitzak

Etxe bat salgai MENDARON. Amueblatuta.  
☎ 75 62 62 (gauzez 9-11)

Elgoibarren edo inguruan PISU BAT ALOKATU edo konpartituko nuke. Iosune.  
☎ 74 41 32 (egunez)  
☎ 59 21 36 (8etatik aurrera)

ALTZOLAN BUHARDILA BAT alokatzen dut. Hornituta eta baldintza onean. ☎ 74 37 41

Mendaron ETXEBIZITZA BAT SALGAI. Buztinalde plazan. Amueblatuta.  
☎ 77 05 90 Angel Mari

## Salerosketak

Ford Escort XR3, 16 v., SS AN kotxea saltzen dut.  
☎ 74 34 63 Xabi (gauzez)

Errepideko bizikleta salgai. CONTINI markakoa. Shimano 105 STI Mavic. 100.000 pta. Oso ondo dago.  
☎ 74 26 49

ERREPIDEKO BIZIKLETA salgai. Egoera oso onean eta prezio interesgarria.  
☎ 74 28 56

Haurrentzako Ihauterietako jantziak salgai (Txano gorritxu, Dama antigua eta arabiarra)  
☎ 74 14 69

SKIAK (1,85) eta eskiatzeko BOTAK (42) salgai. Egoera onean.  
☎ 74 18 55 (gauean)

## Bestelakoak

IKASLE IPAR AMERIKARRAK HARTZEKO prest dauden familiekin harremanetan jarri nahi dugu, uda edo urtebete igarotzeko.  
☎ 74 15 14 Maite

WELCOME ingeles ikastaroak, BBB eta UBI EEBBetan eta Ingalaterran. Au-pair EEBBetan.  
☎ 74 15 14 Maite

## Partikularrak

Frantseseko klaseak ematen ditut. Baita itzulpenak egin ahoz eta idatziz.  
☎ 74 04 59 Jacqueline  
74 44 51 (gauzez)

Injinerutza eta magisteritza tituludunak KLASE PARTIKULARRAK ematen ditu.  
☎ 74 01 48 Alazne

MARRAZKETA LINEAL ETA DIEDRIKOKO klaseak ematen ditut.  
☎ 74 43 98 / 74 34 01 Iñaki

## Agurrak

Zorionak Mari Jose Elorza. Zure lagunak Mari Tere eta Arrate.

## PREMIAZKO TELEFONOAK



### OSASUNA

Anbulategia:  
Larrialdiak.....461111  
Txanda hartzeko.....743354  
Planning-a .....742950  
Alkoholiko Anonimoak..740385  
D.Y.A (anbulantzia) ..464622  
Gurutze Gorria.....743864  
Mendaroko Ospitalea756264  
Drogomenpekotasun Z..741008  
Odol Emaileak .....743936

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442  
PESA (Eibar).....102131  
Taxi geltokia.....740898

### UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366  
Kirol Zerbitzua .....744415  
Kultura Zerbitzua .....742158  
Mendaroko Udala ...756100  
Ongizate zerbitzua...743736  
Udaletxea .....741050  
Udaltzaingoa .....741394

### BESTELAKOAK

Caritas .....740142  
Elgoibarko Izarra.....741626  
IMI.....741196  
Kontsumo Bulegoa ...743088  
Liburutegia .....743525  
Musika Eskola .....742145  
Mintxeta .....744315  
Parrokia.....740842  
Polikirolegia .....741361  
Postetxea.....741547

### HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296  
Zaharren Biltokia.....740526

### IKASTETXEAK

Haur Eskola .....74 21 41  
Herri Eskola .....74 08 79  
I.M.H. ....74 41 32  
Instituta .....74 02 67  
Ikastola .....74 44 41  
L.H.I.....74 44 80  
Pilar Ikastetxea .....74 13 31

### KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12  
El Diario Vasco .....74 40 73  
El Mundo .....74 27 59  
El Correo Español...74 10 82  
Egin.....10 84 21  
Zazpiki .....74 34 74

## 23 OSTIRALA

18,30 ODOL ATERALDIA

✓ P.M. Urruzuno 8an

22,15 ZINEA

“Two much”

## 24 LARUNBATA

11,30 ZAZPIKIREN BILERA

✓ Zazpikiko lokalean

19,30-22,15 ZINEA

“Two much”

## 25 IGANDEA

16,30 ZINEA

“La llave mágica”

19,30-22,15 ZINEA

“Two much”

## 26 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

“Two much”

## 27 ASTEARTEA

22,00 ZINEA

“Two much”

## txandak

### FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
24, larunbata:	Etxeberria	Etxeberria
25, igandea:	Etxeberria	Etxeberria
26, astelehena:	Ormazabal	Ormazabal
27, asteartea:	Ormazabal	Ormazabal
28, asteazkena:	Ormazabal	Ormazabal
29, osteguna:	Ormazabal	Ormazabal
1, ostirala:	Yudego	Yudego

### OKINDEGIA:

25, igandea: DONA MERCEDES

## ZineA

### Two much

Zuzendaria: Fernando Trueba

Antzezleak: Antonio Banderas, Melanie Griffith, Daryl Hannah.

Miami Beach-en pintura galeria kaxkar bat duen Art Dodge-ek (Antonio

Banderas) margoak saltzen ditu modu ez oso ortodoxoan. Salmenta xeibre horietako batean, Betty Kerner emakume aberatsa (Melanie Griffith) ezagutuko du. Betty bigarren aldiz dibortziatu da eta Art-ekin maitemintzen da. Emakumeak lehen bait lehen ezkondu nahi du Art-ekin bere senar-ohia bistatik galtzeko. Baiezkoa eman aurretik Bettyk ezkontza antolatuko du baina gauzak zeharo endredatuko dira Art-ek Bettyren ahizpa ezagutzen duenean.




### LA llave mágica

Zuzendaria: Frank Oz

Antzezleak: Hal Scardino, Litefoot, Lindsay Crouse

Omrík, bederatzigarren urtebetetzean zenbait operari jasotzen ditu, tartean, armairu zahar bat eta plastikozko indio bat. Omriren amak, armairuaren giltzaren zulorako giltz bat topatzen du. Omrik india armairu barruan sartzen du eta giltzari eraginez, gauza harrigarri batekin topatuko da: plastikozko india, gizaki bihurtu dela.



# Bide Tinko eta Baketsua

Igone Martinez de Luna · Begoña Lasagabaster · Carlos Garaikoetxea · Jasone Irragarri · Pello Yaben



eusko  
alkartasuna

